



Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

UPV/EHU

Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak

SGIker

2020ko memoria

Ikerketaren arloko Errektoreordetza

Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak – SGiker

Bizkaiko Campusa
Errektoretza eraikina, 2. solairua
Sarriena auzoa z.g.
48940 Leioa, Bizkaia
Tel.: 94 601 50 50
Webgunea: www.ehu.es/SGiker

Eskerrak:

Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministerioa. EGEF eta Europako Gizarte Funtsa laguntza programak.

Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila. Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza.



Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak (SGiker) kalitate programa batean murgilduta daude. Horren barruan, ikerketaren laguntza unitateak UNE-EN ISO 9001 arauaren irizpideen arabera ziurtatzea aurreikusten da, baita entseguak UNE-EN ISO/IEC 17025 erreferentziazko aruari jarraikiz akreditatzea eta zerbitzu kartak abian jartzea ere.



*. Portadako irudia Bizitzaren Basoari dagokio, Bizkaiko Campuseko Leioa-Erandio eremuan dagoena.

Monumentua altuera handiko 20 zuhaitz metalikok osatzen dute, eta, haren barruan, beren gorputza ikerketa zientifikoari utzi dioten emaleen erratsak dituzten kutxatilak daude.

Egilea: Iñaki Echeverría. SGiker.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
2. Antolakuntza egitura	5
3. 2019-2022 Plan Estrategikoaren harira egindako jarduerak	7
OE.1.- Irakaskuntza eta ikerketa laguntzea	7
OE.2.- Ezagutza zientifikoaren dibulgazioa.	26
OE.3.- Nazioartekotzea	35
OE.4.- Pertsonak	38
OE.5.- Barne hazkundera	40
4. Tarifak	50
5. Taulen eta irudien aurkibidea	113

1. Sarrera

Ikerketarako Zerbitzu Orokorren (SGIker) lehentasunezko helburuen artean, UPV/EHUn eskuragarri dagoen azpiegitura zientifiko-teknologikoaren kudeaketa eta zentzuzko erabilera daude, ikerketa zientifikoa eta teknologikoa garatzen eta ezagutza gizartera helduarazten laguntzeko.

Eskualdeko eta Europako ikerketaren arloko politikekin bat etorritik, lehentasunezko beste jarduerak bat, ikerketaren internazionalizazioa da, eta beharrezkoa da beste herrialde batzuetako eragileekin lankidetzak indartzeko, horrela, nazioarteko bikaintasun eta lidergo zientifiko maila gorena lortuz.

Horretarako, Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrek, ahal den neurrian, beren azpiegitura zientifiko-teknologikoa eta kualifikazio handiko teknikariak atxikitzea sustatzen dute, komunitate zientifikoak, zientziaren mugan, ikerketa bat egin ahal izan dezan, eta sare sozioekonomikoaren lehiakortasuna eta aurrerapen ekonomiko eta soziala areagotu ditzan.

Lerro hauek, Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorren 2020rako jarduerak-memoriaren sarrera osotuko dute. Urte hau, desberdina izan da, COVID-aren ondorioz. Egoera zail guztietan bezala, Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrek, egoera honi alde positiboa ateratzen saiatu dira, eta, urte honetan zehar, gurekin lan egiten duten pertsonen trebetasun digitalak eta teknika analitiko espezifikoetan duten prestakuntza hobetu ditugu, eta kalitate-prozedurak eta analisi-metodologiak berriro ditugu. Prestakuntza-ikastaroak eman dira, gehienak, modu teorikoan, eta prestakuntza-eskaintza berri bat diseinatu da. Denok lan egin beharko dugun gogor, pandemia iritsi aurreko adierazleak berriro lortu ahal izateko.

Ez nuke amaitu nahi lagundu diguten pertsona guztiei eskerrak eman gabe. Mila esker bihotz-bihotzez.

Leioan, 2021ko otsailaren 22an




Maribel Arriortua

SGIkerretako zuzendaria



2. Antolakuntza egitura

SGIkerrek azpiegitura berezia eta kualifikazio handiko langileak dituzte hogeiren bat unitate eta/edo zerbitzu baino gehiagotan banatuta. Unitate eta zerbitzuok, halaber, UPV/EHUren hiru campusetan daude banatuta (Leioa, Donostia eta Gasteiz); hartara, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hiru lurralde historikoetan dute presentzia. Unitate horiek eta horien azpiegitura zientifiko-teknologikoa langile propioek kudeatzen dituzte, eta arlo teknikoa eta kudeaketa arloa bereizten dira, SGIkerren organigrama funtzionalean islatzen den moduan (1. irudia, 1. taula). Guztira, 52 lagunek osatutako langile talde teknikoa dago, eta horietatik 37 doktoreak dira, gainera.



1. irudia. SGIkerren organigrama funtzionala.

Arlo zientifikoa

ARLOA	UNITATEA / ZERBITZUA
Babes teknologikoa	Analisirako Zerbitzu Zentrala
	Multiespektroskopia Akoplatuen Laborategi Berezia (Raman-MAKLAB)
Materialak eta azalerak	Geokronologia eta Geokimika Isotopikoa
	Laser Laborategia
	Makroportaera-Mesoegitura-Nanoteknologia
	Neurri Magnetikoak
	Mikroskopia Elektronikoa eta Materialen Mikroanalisa
	Mikroskopia: Polimeroen analisa
	X izpiak: Molekulak eta Materialak; Arrokak eta Mineralak; XPS
	Erresonantzia Magnetiko Nuklearra
Bioteknologia eta Biomedikuntza	Animaliategia
	Genomika: DNA Bankua; Gene Adierazpena; Sekuentziazioa eta Genotipoa; Proteomika
	3. mailako Euste Biologikoaren Laborategia (NCB3)
	Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntzan
	Erradioisotopoak
	Entomologia Forentsea
Ingurumena	Fitotroiak eta Berotegia
Zientzia Historiko eta Geografikoak	Kartografi eta Geografiako Informazio Sistemen Zerbitzua
Gizarte Zientziak	Zientziometria Unitatea
Zerbitzu Komunak	Ikerketari Aplikatuko Informatika (Kalkulu Zientifikoa)
	Kalitate Unitatea

1. taula. Zientzia arloa eta SGIkerren Unitateak.

Zientzia arloko Unitateek askotariko esparruetako zerbitzuak ematen dituzte: Biomedikuntza eta Bioteknologia, Ingurumena, Materialen Zientziak, Gizarte Zientziak, Historiaren eta Geografiaren Zientziak, Laguntza Teknologikoa eta Zerbitzu Komunak.

3. 2019-2022 Plan Estrategikoaren harira egindako jarduerak

OE.1.- Irakaskuntza eta ikerketa laguntzea

L1.1 Zientzia Parkeko (Martina Casiano Plataforma Teknologikoa eta Maria Goyri Animalia Bioteknologiarako Zentroa) SGIker Unitateak.

SGIkerrek Zientzia Parkean duten presentzia sendotzen jarraitzen dute. Horretarako, zerbitzuak ematen dituzten unitateen ekipamendu erosketa berri gehienak edo guztiak txertatzen ari dira: Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentrala (BAZZ), Rx Zerbitzu Orokorra (Martina Casiano Plataforma Teknologikoan), Genomika Zerbitzua: Adierazpen Genikoa, Genomika Zerbitzua: Sekuentziazioa eta Genotipoa, Proteomika Zerbitzua eta Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntza Zerbitzua (Maria Goyri Bioteknologiarako Zentroan):

SGIkerrek Zientzia Parkean duen jarduera igo izanaren isla, nabarmentzekoa da jarduera bertan gauzatzen duten zerbitzuetarako 2020an erositako ekipamenduaren zati handi bat laginak prestatu eta kontserbatzearekin lotuta dagoela, jarraian zehazten den bezala:

- Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentrala: ultraizozkailu bat.
- X izpien Zerbitzu Nagusia: Molekulak eta Materialak: argi zuzena lupa binokular batentzat, kristalografiako laborategirako erosi zena aurreko ekitaldi ekonomikoan.
- Genomika Zerbitzua: Adierazpen Genikoa: Agarosa gel bidezko elektroforesi ekipo bat.
- Genomika Zerbitzua: Sekuentziazioa eta Genotipatzea: termoziklatzaile bat.
- Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntza Zerbitzua: mikroskopia elektronikorako laginak prestatzeko ekipoa, itzaleztatze metalikoaren, gainazalen hidrofilizazioaren eta ultramikromo baten bidez.

SGIkerrek bi eraikinetan lan egiten duten zerbitzuekin daukaten konpromisoaren froga argia da gasak erabiltzen dituzten laborategi guztien aretoan oxigeno mailak detektatzeko sistema ezarri dela, langileen segurtasun-mailarik handiena lortzeko.

Zalantza barik, ziurta daiteke 2020an NGS Nova Seq6000 sekuentziazio plataforma eta Genomika Zerbitzua: Sekuentziazioa eta Genotipoa abiaraztea gertaera garrantzitsua eta erronka zirrargarria izan direla; izan ere UPV/EHU NGS aplikazioetarako erreferentzia bihurtzen du Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) mugetatik harago.

L1.2. Ekipamendua eguneratzea

SGIkerrek, Bikaintasun Campuseko ikertzaileei, ingurune sozio-ekonomikoari eta, oro har, komunitateari, azken belaunaldiko azpiegitura zientifiko-teknologikorako sarbidea eman nahian, beren ondarean txertatu dituzte honako ekipamendu eta instalazioen hobekuntza hauek:

Arabako Erresonantzia Magnetiko Nuklearreko Zerbitzuak RMN 400Mhz kotsola eguneratu du, 2002an erosi zena. Dagoeneko zeuden imana eta zunda hirukoitza mantenduta, zerbitzuak Campuseko ikerketa taldeei, enpresa ehunei eta Arabako lurraldeko zentro teknologikoei laguntza ematen jarraitzea lortu da. Batik bat konposatu organikoak zehazteko erabili da, Elikagaien Zientzia eta Teknologiararen, Kimika Medikoen, Kimika Organiko eta Industrialaren eta Kimika Ez-organikoaren arloetan, besteak beste.

Arabako Animaliategiaren instalazioak hobetu dira; izan ere, karkasadun 65 LED argi, 3 erloju automatiko eta 3 kutxa aldatu dira. Ikertzaileen eskaria handitu denez, giden 2 rack erosi dira, 36 kaiola oso dituztenak. Horrez gain, ordezkoi kaiolen % 30 erosi da; izan ere, kaiola horiek beharrezkoak dira animalia transgenikoen koloniak mantentzeko eta saguekin esperimentatzen jarraitzeko.

Gipuzkoako Polimeroen Analiaren Zerbitzu Nagusiak bere eskaintza handitu du Bereizmen Handiko Transmisioko Mikroskopia Elektronikoaren bidez. Mikroskopia horrek kriomikroskopia unitatea, tomografia egiteko osagarriak eta EDX sistema dauzka, eta EGEF Funtsen eta Eusko Jaurlaritzako kontratu-programaren baterako finantzaketarekin eskuratu da.

Ekipo hori Zerbitzuan txertatzeak gela berri bat egokitzea ekarri du. Gela hori aire girotu sistema batekin ekipatu da, baita Xgard Bright (o₂-ren bol. % 0-25) buru detektatzaile batekin ere, oxigeno mailak adierazteko, bere lana egiten duten teknikarientzako segurtasun neurri gisa. Gela berriaren erabilerak lan estazio berria erosteko beharra eragin du.

Gipuzkoako Makroportaera-Mesoegitura-Nanoteknologia Zerbitzuak Unitatea osatu du Ingurumen Ganbera bat eta Saiakuntza Mekanikoen Makina Unibertsalerako Saiakuntzen Software Profilatzailea gehituz (dagoeneko eskuragarri dago zerbitzuan) eta Transduttore Bikoitze Erreometro Modular bat lortuz. Horrela, bi taldeek erronka berritzaileagoi behar bezala heltzeko aukera daukate, mugako ikerketa batera bideratuta.

Entsegu Mekanikoen Makina Unibertsalean egindako hobekuntza garrantzitsua da, eta, horri esker, material berritzaileen esparruan eskakizun berriak garatu eta aurrera egin ahalko da, Europako araudian ezarritako zuzentarauen alde eginez.

Prestazio Altuko Transduttore Bikoitze Erreometro Modular berriak zerbitzuarentzat aukera bikaina dakar alderdi erreologikoan eta biskoelastikoan hobetzeko.

Geokronologia eta Geokimika Isotopikoko Zerbitzuak Grabitate bidezko Kromatografia Likidoen Estazio Automatikoa lortu du, SGGI-CROMESen ekoizpen zientifikoa optimizatzeko aukera emango duena. Horrekin batera, emaitzak emateko epea murriztu eta horien kalitatea hobetuko da.

Laginak gela zurian ahal den garbien prozesatzeko xedearekin, PFA destilagailu berria jarri da erreaktibo ultrapuruak ekoizteko. Gainera, 19 minutuko 15 KVA EES bat aldatu da ICP-MS Neptune baten eta masen espektrometro baterako ur hozkailu baten ordezkoi (Water Chiller).

Bizkaiko Animaliategiak, animaliak behar den moduan mantentzeko, 500 kubeta berritu ditu polikarbonatoan, altzairu herdoilgaitzeko zuloa dutenak automatikoki edateko.

Bizkaiko Genomika Zerbitzuak: Adierazpen Genikoak beharrezkotzat jo du agarosa gel bidezko elektroforesi ekipo bat erostea, azido nukleiko zatien tamainak aztertzeko; izan ere, horrela, tamaina zehatzeko intereseko zatiak eskuz purifikatu ahal dira. Oso erabilgarria da NGS liburutegiak prestatzeko prozesuan DNA zatiak purifikatzeko, kostu txikian.

Laser Zerbitzu Orokorak (Bizkaia) bere ekipamendua handitu du; izan ere, pausoz pausoko motorrak dituen 3 ardatzeko plataforma bat eta haren kontrolagailua erosi ditu, zerbitzuan dauden mikroprozesatze sistemaren posizionamendu motorrak laser ultralaburreko pultsuekin ordeztzeko, eta, era berean, haizebide bat gehitu du jet likidoak sortzeko. Horri esker, konpresio optikoko

sistema bat garatu ahalko da, pultsuen iraupena murrizteko aukera emango duena, eta, horrela, konpresio optikoko esperimentazio sistema bat sortu ahalko da.

Bizkaiko Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntza Zerbitzuak Nikon TiU fluoreszentzia mikroskopia bat eguneratu du. Halaber, irudi digitalak hartzeko sistema berri du, hardware eta software mailan. Horretarako, softwarean fluoreszentziako LED argizatze sistema bat integratu du eta dekonboluzio modulua txertatu du irudi fokukideak lortzeko. Horrela, mikroskopia oso erabilgarriak diren eta eskari handia duten bi aplikaziotan erabili ahalko da, gaur egun zerbitzuan ez daudenak: eremu handiko irudiak lortzea eta irudi digitalen dekonboluzioa.

Unitatea Zientzia Parkeko instalazio berrietara eramateak ultramikrotomo berri bat eta itzalezatze metalikoaren eta gainazalen hidrofilizazioaren bidez mikroskopia elektronikorako laginak prestatzeko ekipo bat erosteko beharra sortu du.

Zerbitzu honek egokitzen du fluoreszentzia mikroskopia guztien argizatze sistemak eguneratzea, eta merkuriozko lanparak LED sistemak izatera igaro dira. Berrikuntza horrek bizitza erabilgarria luzatu eta gaitasun teknikoak hobetuko ditu. Horrez gain, ingurumen hobekuntzan eta epe ertainera energia aurrezten lagunduko du.

Bizkaiko Genomika Zerbitzuak: Sekuentziazioa eta Genotipoak Errendimendu Altuko Sekuentziazio Masiboko NovaSeq 6000 Sistema instalatu eta martxan jarri du, EGEF Funtsen eta Eusko Jaurlaritzako kontratu-programaren baterako finantzaketaren bidez. Merkatuko errendimendu altuko sekuentziazio plataforma indartsuena da. Horri esker, zerbitzuak bere eskaintza EAetik kanpo handitzen du. Horretaz aparte, ikerketa taldeen ahalmen zientifiko-teknikoak eta Biozientzien sare publikoa eta pribatua indartu dira.

Era berean, zerbitzuak eskuragarri dagoen sekuentziagailu kapilarra aldatu du SeqStudio Sekuentziagailu Kapilar baten ordez, eta termoziklatzaileetako bat SimpliAmp Termozikladore baten ordez.

Horretaz aparte, ekipamenduek eta jasotako laginek horien erabilera eta mantenu egokirako baldintzak izan ditzaten, izozkailu bertikal bat lortu da Gipuzkoako Animaliategirako, **Mikroskopia Elektronikoko Zerbitzuan** instalatutako JSM-7000-F Mikroskopia Eskaneatzailerako (SEM) ur hozkailua ordeztu da, garbiketa eremurako termo elektriko berri bat eta **Bizkaiko Animaliategirako** pedal eragingailudun txorrota bat gehitu dira, zoruko/sabaiko aire giroturako ekipo bat ordeztu da **Proteomika Zerbitzuan**, Etengabeko Elikadura Sistema bat (EES) ordeztu da eta ultraizozkailu bat erosi da **Bizkaiko Analisisiko Zerbitzu Zentralean**, bi klimatizazio ekipo eta EES bat ordeztu dira **Raman-Laspea Zerbitzuan**, eta hozteko makina berri bat instalatu da **Fitotroiak eta Berotegia Zerbitzuan**.

Teknikarien laneko segurtasunak lehentasuna duenez, oxigeno mailak detektatzeko sistema batzuk instalatu dira Zientzia eta Teknologia Fakultateko laborategietan, eta horien ekipamenduak gasen erabilera behar du: Geokronologia eta Geokimika Isotopikoa Zerbitzua, XPS Zerbitzua eta Proteomika eta Lipidomika laborategiak.

Jarraian, laburpen taula honetan (2.taula), 2020. urtean erositako ekipamendua aurkezten da, zerbitzua, eta erabili diren funtsen jatorria jasotzen da:

EKIPAMENDUA	K. PROGRAMA	EGEF	F. PROPIOAK	GUZTIRA(BEZ- ik gabe)
Arabako Erresonantzia Nuklear Magnetikoa				
RMN 400Mhz kontsola eguneratzea	213.900,00 €			213.900,00 €
Arabako Animaliategia				
65 argi, 3 erloju automatiko eta 3 kutxa ordezte			1.354,69 €	1.354,69 €
Giden 2 rack, 36 kaiola oso dituztenak eta ordezeko kaiolen % 30	9.600,00 €			9.600,00 €
Gipuzkoako Animaliategi Zerbitzua				
Izozkailu bertikala			401,53 €	401,53 €
Polimeroen Analisia				
Bereizmen Handiko Transmisioko Mikroskopia Elektronikoa	412.000,00 €	412.000,00 €		824.000,00 €
Aire girotu sistema			6.673,38 €	6.673,38 €
Xgard Bright (0-25 vol O2) buru detektatzailea	957,00 €			957,00 €
Lan estazioa			7.546,00 €	7.546,00 €
Makroportaera-Mesoegitura-Nanoteknologia Zerbitzua				
Ingurumen Ganbera eta Saiakuntza Mekanikoen Makinarako Software Profilatzailea	49.932,00 €			49.932,00 €
Transduktore Bikoitze Erreometro Modularra	101.413,21 €		88.386,79 €	189.800,00 €
Mikroskopia Elektronikoko Zerbitzua				
Ur hozkailua			5.900,00 €	5.900,00 €
Rx Zerbitzu Orokorra Molekulak eta Materialak				
Argi zuzena lupa binokular batentzat			2.395,00 €	2.395,00 €
Geokronologia eta Geokimika Isotopikoa Zerbitzua				
Kromatografia Likidoen Estazioa	46.100,00 €			46.100,00 €
PFA destilagailua			5.581,00 €	5.581,00 €
Etengabeko Elikadura Sistema (EES) ICP-MS Neptune baterako	3.636,00 €			3.636,00 €
Masen Espektrometro baterako ur hozkailua	2.124,55 €		3.028,45 €	5.153,00 €
Bizkaiko Animaliategia				
500 polikarbonato kubeta	14.443,00 €			14.443,00 €
garbiketa eremurako termo elektriko bat	196,92 €			196,92 €
NCB2rako pedalez aktibatzen den txorrota			166,76 €	166,76 €
Proteomika Zerbitzua				
Zoruko/sabaiko aire girotu sistema	4.097,00 €			4.097,00 €
Genomika Zerbitzua: Adierazpen Genikoa				
Agarosa gel bidezko elektroforesi ekipo bat	2.184,50 €			2.184,50 €
BAZZ				
Etengabeko Elikadura Sistema (EES)			3.955,00 €	3.955,00 €
Ultraizozkailua			6.395,00€	6.395,00

EKIPAMENDUA	K. PROGRAMA	EGEF	F. PROPIOAK	GUZTIRA(BEZ-ik gabe)
Lasero Zerbitzu Orokorra				
Pausoz pausoko motorrak dituen 3 ardatzeko plataforma			8.460,73 €	8.460,73 €
Jet likidoak sortzeko haizebidea	2.835,00 €			2.835,00 €
Mikroskopia Analitiko eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntza Zerbitzua				
Nikon TiU fluoreszentzia mikroskopia eguneratzea			11.630,00 €	11.630,00 €
Fluoreszentzia mikroskopia guztien argizatze sistemak eguneratzea			13.062,00 €	13.062,00 €
Ultramikrotomoa			48.640,00 €	48.640,00 €
Laginak prestatzeko ekipoa	14.984,99 €			14.984,99 €
Genomika Zerbitzua: Sekuentziazioa eta Genotipoa				
Errendimendu altuko sekuentziazio plataforma: NovaSeq 6000	398.803,29 €	398.803,29 €		797.606,58 €
SeqStudio Sekuentziagailu Kapilarra	49.321,00 €			49.321,00 €
Termoziklatzailea			3.930,00 €	3.930,00 €
Raman-Laspea Zerbitzu Nagusia				
Bi klimatizazio ekipo			5.198,41 €	5.198,41 €
Etengabeko Elikadura Sistema (EES)	1.648,02 €			1.648,02 €
Fitotroia eta Negutegia				
Hozkailua ordeztzea	33.846,07 €			33.846,07 €
Azpiegiturak				
Oxigeno mailak detektatzeko sistemak instalatzea			18.986,98 €	18.986,98 €
GUZTIRA*	1.362.022,55 €	810.803,29 €	241.691,72 €	2.414.517,56€

2. taula. Finantzazioaren jatorriaren laburpena.

(*) Erosketa-espeditentek ez dira beti ordaintzen hasten diren ekitaldian.

2. taulak honako hau islatzen du: SGIkerrek ekipamendu zientifiko-teknologikoan egindako inbertsioak % 25 baino gehiago igo direla 2019ko ekitaldiarekin alderatuta. Nabarmentzekoa da lau ekipo erostea inbertsio guztien % 84 izan dela. Gainontzeko % 16a ekipamendu txiki bat eta laguntzarako ekipoak lortzeko erabili da, bai eta ekipamendua fabrikatzaileak zehaztutako baldintzetan gordetzen duten instalazioak berritu eta egokitzeko ere, funtzionamendu eta mantentze egokia izan dezan.

Adierazi behar da SGIkerrek diru-sarrera propio asko erabiltzen dituztela lizentzia informatikoak konpondu, prestatu, mantendu eta berritzera; izan ere, ekipamendu zientifiko bolumen handia dute, 20 zerbitzu baino gehiagotan banatuta.

Azkenik, jakinarazi behar da SGIkerrek ekipamendu zientifiko-teknologiko berriak erosteko erabili dituen funtsen zatirik handiena (% 90) EGEF funtsen eta Eusko Jaurlaritzaren kontratu programaren bitartez ordaindu direla, eta gainerako % 30a, berriz, funts propioen bitartez.

L1.3. Hitzarmenak eta lankidetzak garatzea, bereziki Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearekin (ZTBES).

1438 barne zerbitzu eta 612 kanpo zerbitzu (guztira: 2050 zerbitzu) egin dira. UPV/EHUz kanpoko erakundeei egindako zerbitzu guztien % 45,1 (276 zerbitzu) zuzenean Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) 25 erakunderekin egin dira. Zehazki, 2020. urtean, SGIkerrek sare horretako eragile hauei eman diete laguntza zientifiko-teknologikoa (3. taula):

ACHUCARRO BASQUE CENTER FOR NEUROSCIENCE FUNDAZIOA
ASOC CENTRO DE INVESTIGACION COOP EN BIOMATERIALES
ASOC INSTITUTO BIODONOSTIA
ASOC INSTITUTO DE INVESTIGACION SANITARIA BIOCUCES BIZKAIA
ASOCIACION CENTRO DE INVESTIGACION COOPERATIVA EN BIOCUCENCIAS CIC BIOGUNE
ASOCIACIÓN CENTRO TECNOLÓGICO CEIT-IK4
ASOCIACION DE INVESTIACION MPC MATERIALS PHYSICS CENTER
BASQUE CENTER FOR MACROMOLECULAR DESIGN AND ENGINEERING, POLYMAT FUNDAZIOA
BC3 BASQUE CENTRE FOR CLIMATE CHANGE - KLIMA ALDAKETA IKERGAIA
BIOKERALTY RESEARCH INSTITUTE, A.I.E.
CIC ENERGIGUNE
DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTER
FUNDAC BCMATERIALS-BASQUE CENTER FOR MATERIALS APPLICATIONS AND NANOSTRUCTURES
FUNDACIÓN GAIKER
FUNDACIÓN TEKNIKER
FUNDACIÓN ARKEOLAN
FUNDACIÓN AZTERLAN
FUNDACIÓN AZTI AZTI FUNDAZIOA
FUNDACIÓN BIOFISICA BIZKAIA/BIOFISIKA BIZKAIA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN CIDETEC
FUNDACIÓN PARA LA FORMACION TECNICA EN MAQUINA HERRAMIENTA
FUNDACION TECNALIA RESEARCH & INNOVATION
INVESTIGACIÓN UNIVERSIDAD EMPRESA JAKINTZA LANEZKO IKERKUNTZA
NEIKER-INSTITUTO VASCO DE INVESTIGACION Y DESARROLLO AGRARIO SA
MAIER, S· COOP·

3. taula. SGIkerrek 2020. urtean lagundutako ZTBESeko eragileak.

Beste lankidetzak kontratu bat ere sinatu da Fyla Laser SLrekin, ikerketa eta garapen proiektuan saiakuntzak egiteko. Honako hau da izenburua: "erdieroaleak karakterizatzeko sistema, bi fotoi xurgatzeko korrante iragankorraren teknikaren bidez".

Bestalde, kontratuak eta lankidetzak hitzarmenak sinatu ditu eragile hauekin:

- ✓ Ertzaintzako Polizia Zientifikoarekin lankidetzak, aholkularitza emateko, analisiak egiteko eta prestakuntza emateko.

- ✓ Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailarekin lankidetzan, legez kanpoko substantzia adiktiboaren laginei buruzko azterlan eta txostenetan.
- ✓ Salamancako Láseres Pulsados Ultracortos zentroarekin lankidetzan (Ikerketa Nuklearrerako Europako Erakundearekin – CERN, Suitza – lankidetzan), Laser Laborategia etengabe erabiltzeko.
- ✓ UPV/EHU-FAES Pharma kalitate hitzarmena, zerbitzuak kalitatez gauzatzeko estandarrak ezartzeko eta kalitatea kontrolatzeko laborategi gisa jarduteko (SGIker, UPV/EHU ISO 9001, ziurtagiri zk.: ER1138/2010).

Horrez gain, beste 17 hitzarmen orokor daude kanpoko erakundeekin eta UPV/EHUren artean (CIC, BERC, CSIC-EHU Zentru mistoak,...), eta hor zuzenean inplikaturik daude Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak (SGIker), erakunde horien eskura jartzen dituztelako langileak eta azpiegiturak baldintza onuragarrietan.

L1.4 Ekoizpen zientifikoan SGIkerren laguntzari berariazko aitortzea egitea sustatzea.


SGIkerrek funtsezko laguntza ematen diote Euskal Herriko instituzio akademiko nagusiaren barruan eta kanpoan egiten den ikerketari. Horrela, argitalpen zientifikoek, doktorego tesiek, master tesiek, patenteek eta ikerketa proiektuek, SGIker eskolaren jarduerekin, biltzarrekin eta unitateetako teknikariek parte hartu duten foro eta mintegiekin batera, garrantzi bereziko adierazle multzoa osatzen dute, SGIkerrek ekitaldi bakoitzean duten eginkizuna neurtzeko.

SGIkerren babesa duten argitalpen zientifikoak


Nabarmenezkoa da azken bost urteetan SGIkerren unitateen laguntzarekin egin diren argitalpenen kopuruaren hazkundera: produkzio zientifikoaren bolumena % 27,8 handitu da aurreko bosturtekoaren aldean (2011-2015). Argitalpenen kalitateari dagokionez, adierazi behar da 2020. urtean inpaktu handiko aldizkarietan argitaratutako artikuluen ehuneko handiari eutsi zaiola, lehenengo eta bigarren kuartilekoak (% 93,32); are gehiago, esan behar da lehenengo kuartileko % 37,5 beren arloko lehen dezilean daudela, 102 argitalpenak (4. taula eta 2 eta 3. irudiak).

	% Q1	% Q2	% Q1+Q2	DEZILEN %
2013	68,03	25,71	93,73	Datua ez dago eskuragarri
2014	69,71	24,82	94,53	Datua ez dago eskuragarri
2015	73,4	23,1	96,5	Datua ez dago eskuragarri
2016	74,1	20,01	94,28	38,25
2017	68,60	21,90	90,50	42,31
2018	70,38	22,01	92,39	41,70
2019	70,30	23,27	93,56	40,85
2020*	62,67	30,65	93,32	37,5

4. taula. Ehunekoak deziletan.
(*2021eko apirilaren 14an hartutako datuak).




2. irudia. Q1 eta Q2 argitalpenen ehunekoa.
(*2021eko apirilaren 14an hartutako datuak).



3. irudia. SGIkerren laguntza duten argitalpenen ehunekoa Q1, Q2 eta dezil inpaktuko aldizkarietan. (*2021eko apirilaren 14an hartutako datuak).

Gure ekoizpen zientifikoko datu basetik jasotako informazioaren arabera, Clarivate Analyticsen Web of Sciencetik (WOS), Scopusetik, Google Scholarretik eta Zerbitzu bakoitzaren memoria zientifikotik lortu dena, SGIkerrek 4.225 argitalpen zientifikotan parte hartu dute 2004tik 2020ra (4.irudia).




4. irudia. SGIkerren ekoizpen zientifikoaren bilakaera (2004-2020).

Jarraian, 5. irudian, azken hamar urteotan SGIkerren laguntzarekin egin diren argitalpen zientifikoek kopurua erakusten da.



5. irudia. 2010-2020 aldian SGIkerren ekarpenak jaso dituzten argitalpenak, 2021eko apirilaren 14an.

Guztira, SGIker zerbitzu eta unitateek 2004az geroztik lagundutako argitalpenen bolumenak 71.960 aipamen sortu ditu orain arte (6.irudia). Horretaz aparte, batez beste 18,64 aipamen eragin ditu dokumentu bakoitzeko, bai eta 88ko h indizea ere, Web of Science (WOS) webguneak emandako informazioaren arabera. Adierazle horiek nabarmen handitu dira 2019an jasotako datuekin alderatuta (63.233 aipamen eta 85eko h indizea).



6. irudia. SGIkerren laguntzarekin egindako ekarpenen aipamenen bilakaera 2004-2020 aldian.

Bere arloko aipamen handieneko artikuluen eta 2020. urteko argitalpenen artean, WOSen arabera, honako hauek nabarmentzen dira:

<p>Trial bond and coordination of trial centres - Comparison with hydrogen bond interaction Por: Grabowski, Slawomir J. COORDINATION CHEMISTRY REVIEWS Volumen: 407 Número de artículo: 213171 Fecha de publicación: MAR 15 2020</p> <p>→ Links Ver abstract ▼</p>	<p>Veces citado: 11 (en la Colección principal de Web of Science)</p> <p> Artículo muy citado</p> <p>Conteo de uso ▼</p>
<p>Microglia Actively Remodel Adult Hippocampal Neurogenesis through the Phagocytosis Secretome Por: Diaz-Aparicio, Irupe; Paris, Inaki; Sierra-Torre, Virginia; et ál.. JOURNAL OF NEUROSCIENCE Volumen: 40 Número: 7 Páginas: 1453-1482 Fecha de publicación: FEB 12 2020</p> <p>→ Links Texto completo gratuito y de la editorial Ver abstract ▼</p>	<p>Veces citado: 26 (en la Colección principal de Web of Science)</p> <p> Artículo popular</p> <p> Artículo muy citado</p> <p>Conteo de uso ▼</p>
<p>Giant magnetoimpedance in rapidly quenched materials Por: Zhukov, A.; Ipatov, M.; Corte-Leon, P.; et ál.. JOURNAL OF ALLOYS AND COMPOUNDS Volumen: 814 Número de artículo: 152225 Fecha de publicación: JAN 25 2020</p>	<p>Veces citado: 19 (en la Colección principal de Web of Science)</p> <p> Artículo muy citado</p>

Dena den, metrika berriak aintzat hartzen badira, komunikabideen eta sare sozialean argitalpen zientifikoaren erreferentzietatik lortu direnak, esparru horietan oihartzun handiena izan duen 2020ko artikulua honako hau da:


Fluorescent bicolour sensor for low-background neutrinoless double β decay experiments

Iván Rivilla, Borja Aparicio, Juan M. Bueno, David Casanova, Claire Tonnelé, Zoraida Freixa, Pablo Herrero, ...
2020, Nature - Article

Observation of the neutrinoless double β decay is the only practical way to establish that neutrinos are their own antiparticles¹. Because of the small masses of neutrinos, the lifetime of neutrinoles... [more](#)


 2  246 [➕ Add to Library](#)

7. irudian, *Fluorescent bicolour sensor for low-background neutrinoless double β decay experiments*, artikuloak izandako eragin altmetriko altua ikus daiteke.




7. irudia: "Fluorescent..." artikuluaren eragin altmetrikoa, banaketa geografikoa eta txioen profila.

Inpaktu aldizkarietarako Web of Science webguneak egiten duen gaikako sailkapena irizpide gisa hartuta, 8.irudian, SGIkerrek UPV/EHUn punta-puntako ikerketa arloen inguruan 2020an sustatutako ekoizpen zientifikoaren banaketa ikus daiteke, hurrengo grafikoan adierazten den moduan.




8. Irudia. WOSeko 2020ko ekoizpenaren banaketa, SGIkerren laguntzarekin, artikulu gehien dituzten gaikako arloen arabera.

Nazio Batuek sustatutako ekimena aplikatzen bada, Garapen Iraunkorreko Helburuei (GIH siglekin ezagunak) dagokienez, SGIkerrek 2020 urtean babestutako ekoizpen zientifikoa honako jarduera ildo hauen barruan sartzen da (9.irudia):




9. irudia. SGIkerren babestutako argitalpenak, GIHen barruan daudenak.

Orokorrean, 10. Irudian, SGIkerren erabiltzaileek 2004-2020 aldian landutako gaiak ikus ditzakegu, urte hauetan lehentasuna duten ikerketa arloekin eta nazioko eta nazioarteko lankidetzaren harremanekin bat datorrena.




10. irudia. SGIkerrek 2020. urtean lagundutako ekoizpen zientifikoaren lankidetzan ari diren egileen, hitz gakoekin eta herrialdeen zerrenda.

Ekoizpen zientifikoaren egileek esleitutako hitz gakoen mailara jaisten bagara, SGikerren unitateak eta zerbitzuak erabiltzen dituzten langileek egindako ikerketen gaien bilakaera nabarmentzen da (11.irudia).



11. irudia. SGikerrek denboran zehar lagundutako ekoizpen zientifikoaren gaien bilakaera.

Sarbide irekiari (OA) dagokionez, autonomia erkidegoan funts publikoak erabilia egin diren ikerketen emaitzak argitaratzeko aginduaren ildoan, SGIKerrek babestutako ekoizpen zientifiko gero eta eskuragarriago dago jende guztiarentzat, muga tekniko edo ekonomiko barik; izan ere, urtetik urtera gero eta handiagoa da testu osoan eskuragarri dauden aldizkarien kopurua, edozein aldaeratan, dela erakunde gordailuaren bidez, dela sarbide irekiko aldizkarien bidez (12.irudia).




12. irudia. SGIkerrek OAetan babestutako ekoizpen zientifikoa, *Unpaywall*en datuen arabera.

Jarduera horren bidez, gainera, komunitate zientifiko eta akademikoari kalitate emaitzen ikuspegi gardena eta orokorra eskaintzen zaio, kualifikazio handiko langileek eta azpiegitura lehiakor baten bidez artatutako zerbitzuen laguntzarekin sortutakoa.

SGIkerren babesarekin egindako doktorego tesiak

Ekipoak eta langile teknikoak finantzatzeko deialdian eskatutako kalitate adierazleak eta irizpideak ezartzeak UPV/EHUn egiten diren eta SGIkerren zerbitzuei eta unitateei atxikitako baliabideak erabiltzen dituzten doktorego tesien jarraipena areagotzera bultzatu gaitu.

Jarduera horren emaitza honako hau izan da: 2020an egindako 103 doktorego tesi identifikatu dira, guztiak UPV/EHUn defendatuak, bi izan ezik (bataartzelona Unibertsitatean eta bestea Australiako Flinders Universityn). SGIkerrek UPV/EHUko doktorego tesi guztien % 24,12 babestu dute (13.irudia).




13. irudia. 2011-2020 aldian SGIkerrek babestutako doktorego tesien banaketa, 2020ko martxoaren 29an.

Horrez gain, 2020an, SGIkerretan egindako tesien % 65ak erakunde izaera du, UPV/EHUn 2020an irakurri diren tesien % 45,9rekin alderatuta. 103 tesietatik, zortzi Pau eta Bordeleko (Frantzia) eta Warwickeko (Ingalaterra) unibertsitateekin batera egin dira. Halaber, 3 doktorego tesi industria kategoriakoak izan dira, eta beste hiru artikuluen bildumaren bidezko tesi kategoriakoak.

Dagozkien esparru zientifikoei erreparatuta (14. irudia), egiaztatu da 2020an egindako tesien kopuru handiena Zientzia Esperimentalen arlokoa dela (% 52,4), ondoren Osasun Zientzien (% 28,2) eta Ingeniaritza eta Arkitekturaren (% 16,5) arloetakoak, eta azkenik, Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoen (% 0,97), eta Arteen eta Gizarte Zientzien arloetakoak (% 1,94).

SGIkerren babesa izan duten eta 2020an irakurri diren 103 tesietatik, 59 emakumeek defendatu dituzte eta 44 gizonek. Alor zientifikoko eta generoaren arabera banaketa honako 14.irudian ikus daiteke.



14. irudia. SGIkerrek babestutako doktorego tesien banaketa, ezagutza alorren eta generoaren arabera.

Era berean, garrantzitsua da honako hau nabarmentzea: SGIkerrek babestutako 103 doktorego tesietatik 22 UPV/EHUKo ikertzaileek zuzendu dituzte, UPV/EHUtik kanpoko langileekin lankidetzan, eta bost, berriz, UPV/EHUtik kanpoko langileek. Tesi horiek AZTI Tecnaliatik, CIDETEC Teknologikoa Zentrotik, Tecnalia Research & Innovation Fundaziotik, biomaGUNE IKZtik, Biozientzietako Ikerketa Kooperatiboko Zentroa (IKZ-bioGUNE), Biodonostiatik eta Malagako Unibertsitatetik.


Lankidetzan defendatutako tesietako 22tan, Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko 10 eragilek parte hartu dute. Horietako 2 Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroak dira, 3 Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZ), 3 Foku Anitzeko Teknologia Zentroak eta bat Agente Berezia da. Kanpoko eragileek zuzendutako 5 tesietan Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko 8 erakundek, 2 Ikerketa Kooperatiboko Zentrok, 2 Foku Anitzeko Teknologia Zentrok, Sektoreko Teknologia Zentro batek, banakako agente batek eta Osasun Ikerketako Institutu batek eman dituzte ikertzaileak tesiak zuzentzeko.

SGIkerren laguntzarekin sortutako argitalpen zientifikoaren aipamenak patenteetan

Inpaktu handiko aldizkarietan artikulak argitaratzea eta patenteak dira ikerketa jardura eta ezagutzaren transferentzia neurtzeko erabiltzen diren adierazle nagusietako bi. Hala ere, bi adierazleak elementu independentetzat hartu ohi dira nabarmena denean lotura handia dagoela goi mailako erakunde akademikoan garatutako ikerketaren eta patenteen artean, berrikuntza babesteko bitarteko nagusi modura.

Ikuspegi horrekin, SGIkerren laguntzarekin 2004 eta 2020 bitartean sortutako argitalpenak aipatzen dituzten patenteen analisi bat sartu dugu hemen. Australiako Cambia eta Queensland unibertsitateek egindako Lens (<http://www.lens.org>) datu basearen Pat Cite tresna erabiliz, oraingoz 454 patente lortu ditugu. Patente horiek bat datoz 317 familiarekin, eta UPV/EHUko Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorretako hainbat unitatetan egindako lanen 179 erreferentzia bibliografiko dituzte.

Hauteman da gero eta patente gehiagok aipatzen dituztela argitalpenak, 15. irudian adierazten den bezala:




15. Irudia. SGIkerren laguntzarekin sortutako argitalpenak aipatzen dituzten patente kopuruaren aldi bateko bilakaera.

Patente horietan, UPV/EHU da gehien jabea, bakarka edo beste erakunde fisiko edo juridiko batzuekin. Nolanahi ere, enpresa pribatuak eta estatuko eta atzerriko ikerketa erakunde eta unibertsitateak ere badaude, besteak beste, hauek: Belgikako Janssen Pharmaceutica konpainia farmazeutikoa, zeina Ameriketako Estatu Batuetako Johnson & Johnson korporazioaren filiala

baita, eta Academia Sinica erakundea, zeina Txinako Errepublikako Akademia Nazionala baita. Adierazitako 454 patenteetatik, haienak dira 24 eta 21, hurrenez hurren.

Horrez gain, azpimarratu behar da SGikerren artikulua aipatzen dituzten patenteen % 46,5 emandako patenteak direla..

Gaiari dagokionez, Kimikarekin eta Metalurgiarekin lotuta daude funtsean, eta gero Medikuntzari eta Albaitaritzari lotutako giza beharrek (16.irudia).



16. irudia. Patenteetan aipatutako argitalpenen gaiak (2007-2020).

Honako hauek dira SGikerren laguntzarekin sortutako artikuluetatik aipamen gehien dituzten artikulua:

- "P2X7 receptor blockade prevents ATP excitotoxicity in neurons and reduces brain damage after ischemia, de los investigadores Arbeloa, J., Pérez-Samartín, A. L., Gottlieb, M., & Matute, C., *Neurobiology of Disease*, 45(3), 954–961 aldizkarian argitaratu zen 2011. urtean eta 26 patentetan aipatu da.

- 'Naked' and Hydrated Conformers of the Conserved Core-Pentasaccharide of N-linked Glycoproteins and its Building Blocks, de los investigadores Barry CS, Cocinero EJ, Carcabal P, Gamblin DP, Stanca-Kaposta E, Remmert SM, et al, *Journal of the American Chemical Society*, 45, vol. 135, 16895-16903 aldizkarian argitaratu zen 2013. urtean eta 26 patentetan aipatu da

Horrela, aztertu da gero eta estuagoa dela literatura zientifikoaren eta berau aipatzen duten patenteen arteko harremana, eta horrek agerian uzten du garrantzitsua dela UPV/EHU SGikerren laguntzarekin egiten den ikerketa, I+G+b produkzio ehunari transferitu ahal izateko, hala tokian-tokian nola nazioartean.

Ikerketaren hasierako ebaluazioan parte hartzea

SGIkerren Zientziometria Unitateak ikerketarako hainbat deialditan lagundu du 2020. urtean hasierako ebaluazio zientifikoa eginez, adibidez:

- (1) Doktore berriak UPV/EHU doktorego ondoko prestakuntza programetan sartu arte kontratatzeko deialdia.
- (2) UPV/EHUko ikertzaile doktoreen espezializatorako deialdia.

Lehen jarduera urteko deialdietara aurkeztutako profilen eta curriculumen hasierako ebaluazioan oinarritu da. 2020ko lehen deialdian, Zientziometria Unitateak doktore berriak kontratatzeko laguntzak eskatu dituzten 30 hautagaien produkzio zientifikoa aztertu du (17 emakume eta 13 gizon). Bigarren deialdian, Zientziometria Unitateak 39 eskatzaileen produkzio zientifikoa aztertu du (20 emakume eta 19 gizon).

UPV/EHUko doktoreen espezializazio deialdiari dagokionez, 2020. urtean 138 eskatzailearen (79 emakume eta 59 gizon) gutxieneko produkzio zientifikoa ebaluatu da, Ikerketako Estatutuko Agentziaren (AEI) Koordinazio eta Ebaluazio Azpiatalari (lehengo ANEP) bidali aurretik.

L1.5 Kalitate estandarrak txertatzea.

Kalitate ziurtagiriaren berrebaluazio positiboa egin da, AENOREk emana, ISO 9001:2015 aruaren arabera, 13 unitatetan. Gainera, SGIkerren prestakuntza eskaintza ziurtatu da (guztira, 14).

Horrez gain, 2020. urtean, berriki erosi diren ekipo guztiak sartu dira ziurtagiriaren irismenaren barruan.

Gaur egun, gure ziurtagiriaren irismena handitzeko asmoarekin jarraitzen dugu, zerbitzu berriak sartuz.


Era berean, Bizkaiko Analisirako Zerbitzu Zentralean (BAZZ) ISO 17025 aruaren menpe egindako analisi tekniken ziurtagiriari eutsi zaio:

- ICP-AESaren bidezko disolbatutako metalen analisia kontsumorako uretan.
- ICP-AESaren bidezko disolbatutako metalen analisia ur kontinentaletan.
- ICP-AESaren bidezko disolbatutako metalen analisia hondakin uretan.
- CP-MSaren bidezko disolbatutako metalen analisia kontsumorako uretan.
- ICP-MSaren bidezko disolbatutako metalen analisia ur kontinentaletan.
- ICP-MSaren bidezko disolbatutako metalen analisia hondakin uretan.
- C, H, N, S eta Oren ehunekoaren analisia lagin organikoetan.
- Ahaidetasun probak egitea gizakietan.

2020an zehar, SGIkerren Zerbitzuaren Kartaren ziurtagiria berritu da, X Izpien Zerbitzuan (XPS) txertatu dena. Ebaluazioa Q-epeko ikuskatzaileek egin dute, eta, aldeko txostena idatzi ondoren, ziurtagiria erakunde horrek berak egin du.

Horrez gain, Ikerketako Zerbitzu Orokorretarako beste Zerbitzu Karta bat egin da. Horren bidez, bi zerbitzu berri emango dira, jada beren gutuna zuten gain: Polimeroen Karakterizazio Zerbitzua; Bizkaiko Analisirako Zerbitzu Zentrala; X Izpiak: XPS Zerbitzua; Fitotroia eta Berotegia; Gipuzkoako RMN Zerbitzua eta Makroizaera-Mesoegitura eta Nanoteknologia Zerbitzua.

17. irudian ziurtagiri eta egiaztapen horiek azken 7 urteetan izan duten bilakaera islatzen da.



17. irudia. 2014-2019 epean kudeaketa aurreratuan lortu diren aitortpenen bilakaera.

Bestalde, SGIkerren Kalitate eta Berrikuntza Unitateko langileek Q-epa taldeko zerbitzuen karten ebaluazio taldearen kide izaten jarraitzen dute; hori ezinbestean bete beharreko baldintza da fundazioak ziurtagiria eman eta hari eusteko.

Jarduera osagarri gisa, 2020. urtean, UPV/EHUko sail bati aholkularitza ematen jarraitu dugu (Ingeniaritza Nuklearra eta Jariakinen Mekanika eta Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza). Horretarako, UNE: EN ISO 17025: 2017 arauan oinarritutako kalitate sistema bat abian jarri da (2020ko irailean, ENACi eskaera egin zaio egiaztapen prozesurako). Horretaz aparte, aholkularitza prozesu berri bati ekin diogu arau berean, Valentziako Unibertsitateko Ikerketa Esperimentalari Laguntzeko Zerbitzu Nagusiari (IELZN) egingo zaiona.

Azkenik, adierazi nahi dugu hainbat bileratan parte hartu dugula UPV/EHUko laborategi akreditatuetako kalitate arduradunekin, ezarritako sistemei eutsi eta horiek hobetzeko asmoz. UPV/EHUko laborategi akreditatuen arteko lankidetzaren ildoan, hodeian gune bat sortu da, bakoitzaren prestakuntza ekintzen dokumentazioa partekatzeko.

OE.2.- Ezagutza zientifikoaren dibulgazioa.

L.2.1.- Eskaintza zientifiko-teknologikoa sustatzea eta eguneratzea.


2020. urtean, 15 ikastaro eskaini dira eta horietako 4 garatu dira. Ekintza horietan 26 pertsonak hartu dute parte (14 gizon eta 12 emakume). Horrez gain, beste bi prestakuntza ekintza gauzatu dira; bata, eskaripeko ikastaro bati loturikoa eta, bestea, SGIkerrek eskaini duen sareko lehen ikastaroa izan da.

SGIkerren prestakuntza eskaintzari dagokionez, adierazi behar da UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren arabera ziurtatu dela SGIkerren jarduera arlo guztietan egiten diren etengabeko prestakuntzako ikastaroen diseinu, eskaintza eta ebaluazio prozesu osoa. 5.taulan, prestakuntza eskaintzari dagozkion adierazle nagusiak aurkezten dira:

IKASTAROEN ESKAITZA ETA ESKAERA	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Guztira emandako ikastaroak	16	25	17	20	21	5
Eskaintzako ikastaroak	16	20	15	16	16	4
Neurrira egindako ikastaroak	0	5	2	4	5	1
Eskaini eta eman ez diren ikastaroak	7 (% 29,2)	8 (% 24,2)	7 (% 29,2)	4 (% 16,67)	8 (% 33,3)	11 (% 73,33)

5. taula. Prestakuntza eskaintzaren adierazle nagusiak.

2020. urtean emandako prestakuntzaren iraupen osoa 115 ordukoa izan da (18.irudia), batez besteko iraupena ikastaroko 23 ordu izanik.



18. irudia. 2014-2020 artean emandako prestakuntza orduen bilakaera.

2020. urtean 29 pertsona aritu dira SGlkerretan prestakuntza hartzen, irakasleak, senior ikertzaileak, junior ikertzaileak, doktorego aurreko ikasle eta ikertzaileak, eta enpresako langileak gehituta. 6. taulan daude datuok.

PARTE HARTZAILEAK	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Parte hartzaile kopurua, guztira	134	289	195	171	201	29
Eskaintzako ikastaroetan parte hartu dutenak	134	167	139	127	108	26
Neurrira egindako ikastaroetakoak	0	122	56	44	93	3


6. taula. SGlker zerbitzuen prestakuntza eskaintzako parte hartzaile kopurua.

Neurrira egindako ikastaroa Master eta Doktorego Eskolako Análisi Forentsea masterrean parte hartu duten ikasleei zuzenduta zegoen.


2021. urterako prestakuntza eskaintza honako esteka honetan dago eskuragarri:

<http://www.ehu.eus/es/web/SGIker/prestakuntza/prestakuntza-eskaintza>

19. eta 20. irudietan ageri da 2020. urtean eskainitako prestakuntza jardueren kopurua, aurreko urteetakoan aldea; halaber, eskainitako ordu kopurua ere zehazten da.



19. irudia.- 2015-2020 aldiko prestakuntza eskaintza.



20. irudia.- 2015 – 2020 aldian eskainitako orduen alderaketa.

Horrez gain, konfinamenduan zehar, Biomedikuntzako Mikroskopia Zerbitzuak ekimen bat jarri zuen martxan, ikastaro bat online eskaintzeko. Arrakasta izan zuen. Egunean 2 ordu irakatsi ziren, 5 egunez (10 ordu guztira), eta 150 pertsonak jaso zuten prestakuntza.

7. taulan ikus daiteke unitate bakoitzak 2020. urtean eskainitako ikastaroen errenda.

SGIker Unitatea	IKASTAROAREN IZENA
X-lzpien Zerbitzua	X-lzpien difrakzioa eta fluoreszentzia: aplikazioa material geologikoetan eta antzekoetan.
Bizkaiko Analisirako Zerbitzu Zentrala	Gasen kromatografia, masen detekzioarekin. Ikastaro teorikoa eta aplikazio praktikoak.
Bizkaiko Analisirako Zerbitzu Zentrala	Datu bolumen handien aldagai anitzeko tratamendu estatistikoa.
Gene Adierazpen Zerbitzua	Gene adierazpenaren analisia denbora errealeko PCR edo RT-qPCR bidez.
Arabako Analisirako Zerbitzu Zentrala	Azterlan metabolomikoen hastapenak, likidoen kromatografia masen espektrometria teknika erabiliz, hegaldi denbora aztertzailearekin (LC-QTOF). (Neurrira eginda)
Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntzan	Irudi digitala mikroskopian: ImageJ / FIJI aplikazio informatikoaren erabilera. (Online)

7. taula: 2020. urtean SGIkerrek parte hartu duten unibertsitateko masterren zerrenda.

Hona hemen SGIkerren prestakuntza zerbitzuak erabili dituzten pertsonen profilak:

- ✓ Unibertsitatetik kanpoko 2 pertsonak (2 emakume) hartu dute parte SGIkerrek eskainitako 2 prestakuntza ikastarotan. Pertsona horietako bat Alacanteko Unibertsitateko Biodibertsitatean dokorea zen; bestea, berriz, NEIKER enpresako laborategiko teknikaria.
